



2019KO URRIAREN 10EKO AGINDUA, LAN ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, LAN ETA JUSTIZIA SAILAREN 2019. URTERAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU ZUEN AGINDUA ALDARAZTEKOA.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1. artikulua xedatzen duenez, *diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egin behar dela nahitaez. Bertan zehaztuko dira, Sailaren diru-laguntzekin lotuta, plana aplikatzean lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzatzeko iturriak ere; betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak beteko direla bermatuta*. Estatuko oinarrizko legedia izango da prezeptu hori.

Aurrekoa betetzeko, , Lan eta Justizia Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzen duen Agindua eman zuen Lan eta Justiziako sailburuak, 2019ko otsailaren 8an.

Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak lehen sektoreko gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzeko laguntzak ematea proposatu du, norgehiagoka-prozedura baten deialdiaren bidez, enpresa horien dimentsionamendua errazteko.

Ekimen hori ez dago sartuta sail honek 2019rako duen Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, eta, beraz, plan hori aldatu behar da indarrean dagoen araudia betetzeko.

Goian adierazitakoa kontuan hartuta, eta Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak) emandako eskumenen arabera, apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuarekin lotuta (Lana eta Justizia Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena), honako hau

EBAZTEN DUT

Lehena.- Lan eta Justizia Sailaren 2019rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea, eta Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren dirulaguntzen lerroa gehitzea horri, lehen sektoreko gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzeko laguntzen deialdiari eta erregulazioari dagokiena, 2019rako. Agindu honi eranstean zaizkion 1., 2. eta 3. eranskinetan dator deskribatuta deialdi hori.



Bigarrena.- Publizitatea eman dakiola agintzea, Lan eta Justizia Sailaren webgunean argitaratuz, eta, era berean, unean-unean ordenamendu juridikoan informazioaren eta gardentasunaren arloan aurreikusitako beste edozein xedapen aplikatu dakiola.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urriaren 10ean

Lan eta Justiziako sailburua,
MARIA JESUS SAN JOSÉ LÓPEZ



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

LAN ETA JUSTIZIA
SAIALA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA

Egitaraua: 1212	2018		2019	
	Zenbatekoa eurotan	%	Zenbatekoa eurotan	%
4. kapitulua			600.000 €	% 100
7. kapitulua				
Guztira			600.000	

3. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza lerroak: Helburu duten edo dituzten sektore edo sektoreak eta emateko prozedura

2. helburu estrategikoa: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben eta/edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea

Dirulaguntzen 3. lerroa: Gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzea lehen sektorean

Organoa: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza

Egitaraua: 1212

Sektore hartzaileak

- Kooperatibak eta lan-sozietateak
- Gizarte-ekonomiako enpresetako bazkideak

Laguntzak emateko prozedura

- Deialdi publikoa - lehiarik gabeko konkurrentzia

GIZARTE EKONOMIAREN ZUZENDARITZA

1. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza lerroak: Helburuak, ekintzak eta adierazleak

2. helburu estrategikoa: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratueta integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben eta/edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea		
Dirulaguntzen 3. lerroa: Gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzea lehen sektorean		
Organoa: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza		
Egitaraua: 1212	2018	2019
<p>Helburua: Lehen sektoreko gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzea, lehiakorrago izan daitezen eta enpresa-egitura sendoago izan dezaten</p> <p>Ekintzak: Integrazio-proiektuak prestatu eta gizarte-ekonomiako enpresak fusioztatzea</p> <p>1. adierazlea: Diruz lagundutako fusioen kopurua 2. adierazlea: Integrazio edo fusioen ondorioz bateratuta geratu diren bazkideen kopurua</p>	<p>Deialdirik gabe 2</p> <p>Deialdirik gabe 200</p>	

2. eranskina: Ardatz estrategikoak eta dirulaguntza lerroak: Aurrekontu-konpromisoak eta finantzaketaren ehunekoa, finantzaketa publiko osoarekiko

2. helburu estrategikoa: Enpresa-kudeaketako eredu aurreratueta integratzeko bidea erraztea, eta kooperatiben eta/edo lan-sozietateen arteko sinergien bila jardutea		
Dirulaguntzen 3. lerroa: Gizarte-ekonomiako enpresak dimentsionatzea lehen sektorean		
Organoa: Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza		